



**AZURMENDI, Joxe**  
**Hizkuntza, Nazioa, Estatua**

Donostia : Elkar Argitaletxea, 2017  
 117 or. ; 21 cm  
 ISBN: 978-84-9027-598-6

1. Joxe Azurmendik, liburu honetan ere, benetako arazo bati egiten dio aurre, hots, berez orokorra den baina euskaldunoi bereziki kezkatzen gaituen galdera bati: hitz egin al dezakegu euskal identitate batez edota ze zentzutan hitz egin dezakegu euskal nazio batez? Antzeko galderak etengabe aurkitzen ditugu gure artean –horien inguruko eztabaidak, hala, ohikoak dira komunikabideetan– eta honexek bakarrik ere agerian uzten du horien atzeko arazoaren errealitatea. Hainbat politikaririk diote –ezbairik gabe ur handitan ez sartzeagatik– beraiek soilik “jendearen benetako arazoez” arduratzen direla, bai, baina Azurmendik ondo asko daki arazo batek ez diola arazo izateari uzten, hori arazo ez dela esateagatik eta errepikatzeagatik. Identitate nazionalaren auziak, beti ere, gure mugak gainditzen ditu eta, egiaz, gizadiaren arazo orokor bati begiratzen dio, hain zuzen, gizabanakoak ez direlako irlak –ez hemen eta ez inon– baizik eta beti eta nonahi giza-talde ezberdinen kideak. Ez da harritzekoa, honela, egungo globalizazioak hainbat estaturen nazionalismoa areagotu izana eta, zentzu honetan, AEBetan Trump-ekin, Erresuma Batuan *Brexit*-arekin edota Frantzian Le Pen-ekin gertatzen ari direnak aipa daitezke adibide moduan.

Euskal identitate nazionala da, zehazki, Azurmendik hemen aztertzen duena eta –baita beraren iraganari eta etorkizunari erreparatuz ere– euskaldun izate horretan euskal hizkuntzak jokatzeko duen papera, ezinbestekoa eta ordezkazina, azpimarratzen du. Bada honetan, eta berak espresuki aitortu bezala, Krutwigek eta bereziki Txillardegik egindakoari jarraitzen dio eta, honen haritik, euskal nazionalismo foral klasikoak –batez ere 1956ko belaunaldikoei esker– ezagutzen duen biraketa linguistikoa ekartzen digu gogora. Azurmendiren helburua –honela Lorea Agirre– hirukoitza da: kontzeptuen ekibokoan kontra jardutea, erreduktionismoak edota sinplekeriak salatzea eta euskal pentsamendu propio baten posibilitateaz hausnartzea. “Hizkuntza”, “nazioa” edota “estatua” bezalako hitzen adierak ez dira unibokoak eta horien arteko erlazioak ere ez dira guztiz zuzenak –horrelakoa da giza errealitatea– baina bere ustez nahitaezkoa da, eta baita posible ere, horiek luze eta zabal aztertuz argibideren bat jasotzea. Idazlan honen hiru atalek, hurrenez hurren, honako hiru galderei erantzun nahi diete: “zein da nazioaren kontzeptu klasikoak?, nola pentsatu gaur euskal nazioa?, eta nola pentsatu euskal nazioaren etorkizuna?”.

2. Nazioa, ezeren aurretik, giza errealitate kolektibo bat ezaugarritzen duen kontzeptu bat da eta, honen haritik, Azurmendik beraren historiari eta, bereziki, beraren erabilera klasikoari erreparatzen dio lehen atalean. Kontzeptuak finean metaforak dira –horixe zioen, besteren artean, Voltaire ilustratuak– eta modu berean esan dezakegu, bada, nazioaren kontzeptua ere zerbaiten islada dela. Azurmendik, honela, garbi antzematen du kontzeptu hori, oro har, aurretiko giza fenomeno “natural” bati erreferitzen zaiola eta, adibidez, horixe dela Herodotok –hizkuntza bera duten– heleniar guztiak biltzeko erabiltzen dituen “arrazak” eta “odola” bezalako hitzen sakoneko zentzua. Nazioak, bestela esanda, jatorrizko giza-elkarteak bezala ulertzen dira eta, honela, geroko *iusnaturalismoak* edo Zuzenbide Naturalak –bereziki Berpizkundetik aurrera– esanahi kultural bat ez ezik estatuen boterearen aurretikoa den esanahi politiko bat ere aitortzen die. Euskal Herria, honenbestez, Euskal Nazioa da eta, zentzu honetan, Azurmendik espresuki oharitzen du nola Etxeparek eta Leizarragak adi-

bidez –eta zalantzarik gabe euskal hizkuntza erreferentziatzen hartuz– “berce nazione orok” eta “berce natione gucien artean” bezalako espresioak erabiltzen dituzten.

Honenbestez, eta ikusitakoak ikusita, beharrezkoa iruditzen zaio “nazio klasikoa zertan datzan” zehaztea eta, zentzu honetan, kontzeptu horrek nagusiki “komunitate linguistikoa” eta “komunitate naturala” izatearen adierak dituela azpimarratzen du. Azurmendik badaki alperrikakoa dela nazio baten berezko izaera hutsaz jardutea –errealitate historiko batek ezin du azken esentziarik eduki– baina honek ez du esan nahi posible ez denik, nolabait, beraren singularitasunaz hitz egitea. Honela egiten du topo hizkuntzarekin: “Ezaugarri esentzial moduko zerbait baldin badago komunitatearen bereizgarria, hizkuntza izaten da hori”. Modu berean, halaber, Azurmendiri guztiz zentzukoa iruditzen zaio nazioaren izaera naturalaz hitz egitea, ez jakina zentzu genetiko-biologiko batean, baina bai adierazteko komunitate nazionala, berez, zirkunstantzia politiko ororen aurretikoa dela. Antzinakoei berriro erreparatu, adibidez, honakoa idazten du: “Polis greko diferenteak daude, baina nazio greko bakarra. ... Polisa eta nazioa, artifiziala eta naturala bezala bereizten dira”. Finean –eta honekin gogora ekarri nahi ditugu Humboldt, Porzig eta Weisgerber– badirudi gizadia, naturalki, hizkuntz komunitate edo nazio ezberdinetan banatuta bezala agertzen zaigula.

3. Nazioa kontzeptu mailan eta, bereziki, beraren adiera klasikoan zer den azaldu ondoren –eta egiaz hortik abiatuz– Azurmendik “egoera edo izaera ez normala” duen gaurko euskal nazioa hobeto ulertzen saiatzen da luzeena den bigarren atalean. Kontua da 1789ko frantziar iraultzaren garaitik hasita, edo, euskaldunak –gutxienez besteekiko alderaketan– ezohiko egoera batean bizi direla, batez ere, euren “nazio izateak” ez duelako aurkitu “subirano izateko” modurik. Honexegatik galdetzen du berak: “Zer da nazio bat, modernitatean egon bai, baina boteretik ez daukana?”. Egungo estatuak euren baitako nazioak ezabatuz osatu diren bezala, bada, euskaldunen nazio zaharrari –eta “pribilegioak ez ziren” Foruak galdu ondoren– ez zaio gaur Kontzertu Ekonomikoa baino geratzen, hots, “euskal subirania historikoaren azkeneko Amaiurtxo hori”. Euskal hizkuntzak ere, eta bereziki espainiar eta frantziar politika berdintzaileen ondorioz, atzera egin du Euskal Herrian bertan –“euskotarra” ez da jada hain “euskalduna”– eta honela dio Azurmendik “nazio hautsia” garelako edo, Gandiaga gogoratuz, “ez garelako iristen izatera”. Beraz, eta ikusitakoak ikusita, bi galdera uztartu edo “josi” beharra ikusten du: “1. Euskadiren independentzia nahi duzu?, eta 2. Euskararen hedapena Euskadi osoan nahi duzu?”.

Nolanahi ere, eta euskal nazioaren egituraketa politikoaz jardun aurretik, Azurmendik ezinbestekoa deritza, berriro, nazioa bera zer den –bai eta zer izan den eta zer izango den ere– gogora ekartzea, hots, aurretiko giza komunitate linguistikoa-natural bat. Nazioa, hala, fenomeno natural pre-politiko bat da: parlamentu batek edo auzitegi batek ezin du erabaki zer den eta zer ez nazioa edo zeri deitu behar zaion eta diogun nazio, hain zuzen, legegilea eta epailea nazioaren beraren ondoren datozelako. Honexegatik salatzen du Azurmendik nazio politikara –eta finean konstituzio jakin batera– erreduzitu nahi izatea: hauxe da “patriotismo konstituzionala” eta honek “eskubiderik gabe eta moralik gabe uzten gaitu”. Nazioaren naturaltasunaz hitz egiteak, alabaina, beraren hizkuntzaz hitz egitera garamatza. Ilustrazio garaian ere garbi zeukaten hori eta –adibidez Rousseau aipatuz– gogora ekartzen digu nola orduan espresuki zioten hizkuntza ezberdinek nazio ezberdinak bereizten dituztela. Bada honen haritik zera dio Azurmendik: “nazioa ez da hizkuntza (bakarrik)” baina “nazioa hizkuntzan errekonozitzen da”. Honekin guztiarekin, finean, nazioaren berezko izaera historiko-kultural-antropologikoa ikustarazi nahi du, hain zuzen, euskal nazioarekiko politika orok, ere, erreferente nagusi bezala hartu beharko lukeen hori.

Azurmendik, jarraian, zehatzago galdetzen du “zerk egiten gaituen euskaldun” eta, oinarriari helduz, euskal hizkuntzak horretan betetzen duen –eta bete behar duen– eginkizun zentrala berresten du. Hasteko, bada, berritzailea edo izan nahi duen honako planteamen-dua kritikatzeko: “euskarak ez gaitu euskaldun egiten ... subaltemitateak egiten gaitu euskaldun” (Jule Goikoetxea). Honek ez du sakonean ezer argitzen eta, zentzu honetan, Azurmendik –buruan “subaltemitate nazionala” duelarik– honako espresioa kontrajartzen dio: “Nik esango nuke euskarak modu batean subalternoak egiten gaituela”. Bestela, eta au-

rrera eginez, ez du ere nahiko ikusten honako definizioa: “nazioa zer da funtsean? ... komunikazio espazio bat” (Joseba Sarrionaindia). Faltsua izan gabe definizio hau orokorregia eta abstraktoegia da eta, Azurmendiren ustez, ez da egokiena euskal auziaren –edo antzeko bestelakoen– inguruko hainbat funtsezko aspektu ulertzeko: “Estatua eta nazioa bereizteko, adibidez, ez digu balio”. Honenbestez, eta horrelako berrikuntza denen gainetik, Azurmendik betikoa izan dena eta betirako izango dena ez ahaztea eskatzen du: “Euskalduna euskarak egiten du. ... Hori da edozein naziotan normala, ez dago beste misteriorik”.

Modu honetan iristen da, bada, “identitatearen inguruan” eta, bereziki, “euskal identitatearen inguruan” pentsatzera, nolahi ere, badakielarik “nazioaren eta hizkuntzaren identifikazio estu-estu eta zurrunik ez duela funtzionatzen”. Euskal kasuan, gainera, Azurmendik nahiko nahasmen antzematen du: hemen “identitate nazionala bi eratara uler daiteke”, hots, modu politiko-territorial batean (“*Euskadi* edo EH geografikoa”) eta modu linguistiko-kultural batean (“*Euskal Herria* edo euskararen herria”). Bada honela –eta gainera Nafarroa hor nor/nola kokatu ez dakigula ere– agerian geratzen da euskal identitatearen arazoa: “Izena ere ezin dugu adostu? Izena baino sinbolo inportanteagorik ez dago komunitate baten identitatean”. Azurmendik, baina, honakoa azpimarratzen du: identitatea –“indibiduala bezala kolektiboa”– ez da “genetikoa” edo “esentzia platoniko” bat, baizik eta “kulturala, historikoa eta aldagarria”. Honela –eta jakinik “historia” ez dela “obligazio bat” baizik eta “eskaintza bat”– zera dio adibidez (euskara gabeko) tuterarren eta kaskantearren euskal identitateaz: “Jada ez denaz eta oraindik ez denaz osatzen da ... izandakoaren memoria eta izatekoaren asmoa, eta bienganako orain dugun eraspina, identitatea hori da”.

4. Gaurko euskal nazioaren egoeratik abiatuz –eta nazioaren kontzeptu klasikoa ahaztu gabe– Azurmendik euskal nazioaren etorkizunari buruzko hainbat hausnarketa eskaintzen dizkigu hirugarren atalean. Honela politikaren esparruan sartzen da zuzen-zuzenean –“nazioa berez ez da politikoa, baina politika beti inplikatzeko eta konplikatzeko duen errealitatea bai”– eta berak badaki hor beharrezkoa bezain zaila dela “biharko helburuen” eta “gaurko zereginen” arteko “oreka” lortzea. Beti da errazagoa “helburua” irudikatzea “helbidea” zehaztea baino. Azurmendik, gainera, “euskaltzalea” eta “abertzalea” beti ez datozela bat egiaztatzen du –“ez gara pentsamendu bakarrekok izan”– eta bereziki gaur “lipizka lexikal” eta “merchandising sarkor” gehiegi aurkitzen du. Hitzak asko(txo) dira –aurrekoek gain, adibidez, “nazionalista”, “independentista”, “separatista”– eta honengatik guztiagatik galdetzen du: “Ez ote erosoago eskarmuxa terminologiko hauei bost axolaz aurre egitea?”. Oronen gainetik, baina, Azurmendik garbi du –egun hainbatek baino gehiago– hizkuntzaren zentralitatea utziezina dela: “Hor dago gakoa: norako bidean sartzen gara, zein dinamika eragiten da egiaz, berbalki behintzat euskara eta abertzaletasuna bigarrentziatzen, atzenarazten dituen diskurtsoarekin?”.

Honenbestez, eta konplexurik gabe, Azurmendik euskal nazioaren balizko estatu propio baten beharraz hitz egiten du, beti ere, hasieratik aitortuz “independentziaren ideia beste Europa baten ideia baino ez dela”. Estatuak ez daude gaudituak eta –bestelakoa ozenki eta askotan esaten bada ere– horien nazioanalismoak ere ez: “Europa egiazki Batua lortzeko eragozpen handiena egungo Estatuon ‘ez-nazionalismoa’ da”. Honexegatik, eta historiari erakutsi bezala, ideia onbera bat den “(kon)federazioa” –non Espainiak eta Frantziak “euskal naziotxoak” zainduko luketen– ez da posible “teoriaren teorian” baino. Honenbestez, eta “txori-amets” horiek utzita, Azurmendik euskal estatuaren aldeko “hautu pragmatiko” bat egitearen beharra aldarrikatzen du: “Independentismoa beste itxaropenik ez deneko itxaropena da, azkeneko soluzioa eta esperantza”. Hemen ez dago idealismo inozorik –soilik errealismo gordin bat– ze funtsean hori bilatzea ez da “beste edozein herrirekin berdintasuna errebindikatzeko” baino. Azurmendik, beraz, argi ikusten du “independentzia” dela helburua –“separatismoa da salbabidea”– baina hori berarentzat ez da besteekin “harremanik ez edukitzea” baizik eta “burujabetasuna” edota “ez-dependentsia” garatzea.

5. Liburu honen lehen orrialdean bertan honakoa irakurtzen dugu: “ezer berririk ez daukat esateko”; eta, honen haritik, zera galdetu dezakegu: ba al dago ezer berririk esateko? Azurmendik ihes egiten dio berritzeagatik berritzeari –horixe da, agian, gaurko bekatuetako

bat– eta modu kontziente batean urruntzen da hitzak eta ideiak, kupidarik gabe, erabiltzen eta botatzen dituen kontsumismo batetik. Berak nahiago du funtsari edo oinarriari –modaz pasa ezin daitekeen horri– tinko eutsi: ez da posible euskal nazioaz hitz egitea euskal hizkuntzaz hitz egin gabe. Aspaldiko autoreei buruz jardutea –izan Herodoto, Etxepare edo Rousseau– ez da aspaldiko kontuez aritzea, ez soilik behintzat, baizik eta baita ere, kasu honetan, gizakiari berari eta berez dagokion dimentsio linguistiko-nazionala gogoraraztea. Azurmendik, honela, mesfidati behatzen ditu hainbat planteamendu berri eta, bereziki, euskararen eta aberriaren kontuak ahaztuz, edo, hiritarren borondate hutsean errotu nahi den independentismoaren planteamendua. Kontua, azken batean, ez da ezer berri behar ez denik –zaharra beti eta aldiro egokitu beharko da egungo errealitatera– baizik eta berrikuntzek ez dutela iparra galdu behar, hots, ezin dutela ahaztu euskarak egin, egiten eta egingo gaituela euskaldun.

Azurmendi, finean, Euskal Herriarekin konpremetituta dagoen aktibista bat da –horixe da hemen eta bere bestelako idazlan denetan ikusten duguna– gure artean pentsamendu propio bat bideratu eta indartu nahi duen euskal aktibista bat. Berak badaki hitzak ez duela soilik zerbait esateko balio, baizik eta baita zerbait egiteko ere (gogora dezagun Austin) eta badaki, halaber, esan-egin hori ezberdina dela erabiltzen den hizkuntzaren arabera, hala, bai ulemen teoriko mailan bai ondorio praktikoko mailan. Euskaraz pentsatuz eta idatziz Azurmendik euskal herrigintza bultzatzen du edo, bestela esanda, euskal errealitatea guretik eta guretzat interpretatzearekin batera –eta nolabait Marx aintzat hartuz– euskal errealitate hori guretik eta guretzat eraldatzeko pausuak ematen ditu. Euskalgintzaren eronkak luze joko du oraindik –hain zuzen euskararen normalizazioa badelako ere euskaldunon normalizazioa– eta Azurmendik, hori garbi antzematen duelako, nahiago du zuzeneko bidean milimetro bat aurrera egin noraezean kilometro bat ibili baino. Bada honenbestez, eta bukatzeko, zera azpimarratuko dugu: jarrera hori bereziki eskertzekoa da gaur, hots, dena gaurtik biharrera edo presaka lortu nahi den eta itxura, askotan, izana baino gehiago baloratzen den garai honetan.

*Iñaki Zabaleta Gorrotxategi*